

LANGILE IKASTOLA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ORDEZKAPENAK

Gutun honen bidez Langile ikastolako irakasleek eta hezitzaileek, gure kezka adierazi nahi dizuegu; ekainean sinatu eta uztailean argitaratutako lan hitzarmenaren ondorioz gertatu diren murrizketez:

1.- Gure ikastetxean, ikasle-irakasle proportzioa igo egin dela aurtengo ikasturtean. Ikasle kopuruak gora egin du(13 gehiago) eta irakasle kopuruak behera egin, 1 gutxiago, eta hori aurreko ikasturtean ez zizkigutela oraindik LH1 eta LH2ko 4.tutoreak kontuan hartu.

2.- Honekin batera ordezkapenak betetzeko baldintzak gogortu egin dira, ordezkapen gehienak 5. egunetik aurrera betetzen direlarik.

3.- Ordezkapenak betetzen ez direnean zuen seme-alabek ez dute behar bezalako erantzunik jasoko, egunean zehar 5 irakasle desberdin pasa ahalko dira zuen haurren gelatik. Honek, hezkuntza prozesuan eragin zuzena du eta ikaste prozesuan suposatzen duen atzerapena onartezin bilakatzen du. Zehazki gure ikastetxean, zuen seme alaben laguntzetan, espezialisten klaseetan, hezitzaileen lanetan eta tutoretza zuzenetan **276** ordu galdu dituzte.

4.- Zaintza orduak betetzen dituen irakasleak, bere lana prestatzeko, laguntza behar duten ikasleei indartze neurriak ezartzeko... egiteko dituen orduak, zuen seme alaben zaintzara zuzentzen ditu, beste egitasmoak eta proiektuak larriki kaltetuz. Honek, bide batez, ehunka ordezko etxean, lanerako noiz deituko, zain egotea dakar.

5.- Guzti honek, gure lan baldintzetan eragin zuzena izateaz gain, zuen seme alabek jasotzen duten hezkuntza kalitatean du eragina, orduak galduz, irakasleen koordinazioa eragotziz,...

Garrantzitsua deritzogu gure ikastetxean gertatzen denaren berri zuzena izan dezazuen, guztion ardurua baita gure ikasleek eta zuen seme-alabek jasotzen duten hezkuntza kalitatearen jarraipena, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideen exigentzia. Beraz, murrizketa hauen aurrean zuen kexa bideratzera gonbidatzen zaituztegu.

Bestarik gabe, adeitasunez

LANGILE HLHko KLAUSTROA

HEZKUNTZA SAILARI KEXAK AURKEZTEKO:

- Donostia–San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
- Tel: 945 01 83 85 / 86
- Fax: 945 01 83 35 / 36
- E-mail: educauei@ej-gv.es